

**12. ERANSKINA:
UKITUTAKO ZERBITZUAK**



Aurkibidea

1. Ikasketaren Helburua.....	3
2. Zerbitzuak.....	3



1. Ikasketaren Helburua

Eranskin honetan, egin beharreko obrak izango duen eragina dauden inguruko zerbitzuetan azalduko da. Gainera zerbitzu hauek kendu beharko diren, bertan babestuko diren edo beste leku batera eramango diren erabakiko eta arrazoituko da ere.

2. Zerbitzuak

Kasu batzuetan, aldaketak ukitutako enpresak berak egiten ditu eta beste kasu batzuetan obraren kontratistak kalkulatu eta egin behar izango ditu aldaketak.

Bai telefonia bai elektrizitate zerbitzu eta instalazioei dagokienez, Euskaltelek eta Iberdrolak sareen kokapen zehatza eskuragarri utzi dituzte. Kasu honetan, aparkalekua kokatuta egongo den orubearen perimetroaren kanpoaldean lekurtzen dira linea hauek, beraz, ez dute inolako arazorik suposatzen aparkalekua egiterako orduan.

Saneamendu eta ur-horniketari dagokienez, ondoko etxebizitzek duten ur eskaera eta hondakin uretarako hoditeria etxebizitzaren aldean lekurtzen dira eta, beraz, proiekturako azaleratik kanpo geratzen dira berriz ere.

Beraz, ikusten den bezala, hondeaketa egiterako orduan ukitu ahal ziren zerbitzuak, obraren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira, horrek, lana asko aurrezten du eta inguruan egon zitezkeen horri buruzko arazoak, desagertu egiten dira.

Bestalde, behin aparkalekua eraikita, zerbitzu hauek aparkalekutik hurbil daudenez, ez dira sare berririk eraiki behar, bakarrik lineak luzatzearekin balio izango du.